

# Sendagaiak zentzuz erabiltzeko gomendioak

2. zenbakia, 2018ko abendua

## SYSADOAREN TRATAMENDUA ETETEA

15 URTEREN ONDOREN, ERAGINKORTASUNIK ERAKUTSI GABE JARRAITZEN DUTE

SYSADOA sendagaiak artrosiaren sintomak tratatzeko daude baimenduta. Ekintza moteleko sendagaiak dira, analgesikoekin (parasetamola eta antiinflamatorio ez-esteroideak) ez bezala, tratamendua hasi eta aste batzuetara gertatzen baita ondorio klinikoak. Espainian, gaur egun, kondroitina-sulfatoa, glukosamina eta diazereina daude merkatuan.

Merkatuan agertu zirenetik jarri da zalantza SYSADOA sendagaien eraginkortasuna (ikusi [INFAC 2004;12\(1\)](#)). Espainian, Osasun Sistema Nazionalak finantzatzen ditu sendagaiok; alabaina, beste herrialde batzuetan (hala nola, Danimarkan, Suedian eta Frantzia), finantzaio publikotik kendu dituzte, bai zalantzazko eraginkortasuna dutelako, bai kostuaren eta eraginkortasunaren arteko erlazioa txarra delako. Beste herrialde batzuetan (adibidez, Estatu Batuetan), aldiz, ez dituzte inoiz finantzatu, eta gehigarri dietetikoztat jo izan dituzte beti, ez sendagaitzat.

Euskadin, azken bost urteotan, osasun-arloko profesionalen esku-hartzeari esker, sendagai horiek gutxiago preskribitzen direla ikusi da. Bada, 2013an, 9,42 dosi preskribitzen ziren mila biztanleko eta eguneko (DBE); 2017an, berriz, 5,77. Hala ere, 2017an 31.576 emakumek eta 12.407 gizonek eduki dute tratamendu aktiboren bat PRESBIDEN, 2.683.053 euroko gastuarekin guztira.

Osasun Sailak adierazi duenez, osasun-arloko desinbertsioaren xedeetako bat da SYSADOA sendagaien preskripzio-murrizketa, "ez egiteko" estrategien barruan.

Ildo berean, artrosiaren tratamenduari buruzko [INFAC buletin](#) bat argitaratu da berriki, eta, bertan, sendagai horien azken azterketa sistematikoak eta sendagaiokin egindako entsegu kliniko argitaratuak ebaluatu dira. Berrito ere, eraginkortasunari buruzko datuak (egiturazko mailari nahiz artrosiaren sintomak arintzeari dagokienez) sendoak ez direnez, ezin daiteke SYSADOA erabiltzea gomendatu. Halaber, herritarrentzako i-botika fitxa bat dago webean: [Artrosiaren aurrean ez etsi... hobetzea zure esku dago!](#) ■




## GOMENDIOAK

Ez dugu SYSADOA sendagaiak erabiltzea gomendatzen, eraginkortasunari buruzko datuak sendotasunik gabeak direlako.

Tratamendu berri bat hasiz gero, sintomak hobetu ezean sendagaia kenduko duzuela adostu pazientearekin.

Aurretik ezarritako tratamenduetan, aldizka eraginkortasuna berrikusi, onura sintomatikorik egon ezean tratamendua etetea baloratzeko.



## BIBLIOGRAFIA

1. Artrosiaren tratamendua. 2018ko INFAC buletina; 26(1):1-8. [https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/cevime\\_infac\\_2018/eu\\_def/adjuntos/INFAC\\_Vol\\_26\\_N%201%20eu.pdf](https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/cevime_infac_2018/eu_def/adjuntos/INFAC_Vol_26_N%201%20eu.pdf)
2. McAlindon TE, Bannuru RR, Sullivan MC, Arden NK, Berenbaum F, Bierma-Zeinstra SM et al. OARSÍ guidelines for the non-surgical management of knee osteoarthritis. Osteoarthritis and Cartilage. 2014;22:363-388.

Argitalpena: 1.a, 2018ko abendua • © Euskadiko Herri Administrazioa. Osasun Saila • Internet: [www.euskadi.eus/gobierno-vasco/farmacia/inicio/](http://www.euskadi.eus/gobierno-vasco/farmacia/inicio/) • Egileak: Grupo de Trabajo de Análisis del Consumo Farmacéutico. • Argitaratzailea: Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia. Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco • Diseinua: ekipoPo.

## DEPRESCRIPCIÓN DE SYSADOA

15 AÑOS DESPUÉS CONTINÚAN SIN DEMOSTRAR SU EFICACIA


Los SYSADOA están autorizados para el tratamiento sintomático de la artrosis. Se denominan medicamentos de acción lenta porque, a diferencia de los analgésicos (paracetamol y AINE), su pretendido efecto clínico se produce semanas después de iniciar el tratamiento. En España actualmente están comercializados condroitín sulfato, glucosamina y diacereína.

La eficacia de los SYSADOA ha sido cuestionada desde su aparición en el mercado, ver [INFAC 2004;12\(1\)](#). En España, estos medicamentos están financiados por el Sistema Nacional de Salud; sin embargo en otros países como Dinamarca, Suecia y Francia su dudosa eficacia y su relación coste-efectividad desfavorable, han llevado a su retirada de la financiación pública. En otros países como Estados Unidos nunca han estado financiados y siempre han sido considerados suplementos dietéticos, no medicamentos.

En los últimos 5 años, en Euskadi, gracias a la intervención de los profesionales sanitarios, se ha observado una disminución de la prescripción de estos medicamentos, pasando de 9,42 DHD en el año 2013 a 5,77 DHD en 2017. No obstante, durante 2017, 31.576 mujeres y 12.407 hombres han tenido algún tratamiento activo en Presbide, lo que se corresponde con un gasto de 2.683.053€.

El Departamento de Salud ha señalado la disminución de la prescripción de los SYSADOA como uno de los objetivos de desinversión en salud, en línea con las estrategias de “no hacer”.

En la misma línea, recientemente se ha publicado un [boletín INFAC](#) sobre el tratamiento de la artrosis en el que se han evaluado las últimas revisiones sistemáticas y ensayos clínicos publicados con estos medicamentos. De nuevo, la inconsistencia de los datos sobre su eficacia (tanto a nivel estructural como en el alivio de los síntomas de la artrosis), no permite recomendar el uso de los SYSADOA. También está disponible en la web una ficha i-botika dirigida a la ciudadanía [Que la artrosis no te pare... ¡mejorar está en tu mano!](#) ■



### Recomendaciones

No se recomienda el uso de los SYSADOA debido a la inconsistencia de los datos sobre su eficacia.

En el caso de iniciar un nuevo tratamiento, se recomienda acordar con el paciente la retirada del mismo si no mejoran los síntomas.

En los tratamientos ya establecidos, revisar periódicamente la eficacia para valorar su deprescripción si no existe un beneficio sintomático.

### BIBLIOGRAFÍA

1. Tratamiento de la artrosis. Boletín INFAC 2018;26(1):1-8. [https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/cevime\\_infac\\_2018/es\\_def/adjuntos/INFAC\\_Vol\\_26\\_N%201\\_es.pdf](https://www.osakidetza.euskadi.eus/contenidos/informacion/cevime_infac_2018/es_def/adjuntos/INFAC_Vol_26_N%201_es.pdf)
2. McAlindon TE, Bannuru RR, Sullivan MC, Arden NK, Berenbaum F, Bierma-Zeinstra SM et al. OARSÍ guidelines for the non-surgical management of knee osteoarthritis. Osteoarthritis and Cartilage. 2014;22:363-388.